

Azpeitian, 2013ko uztailaren 4an

Lagun agurgarria,

**Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa** formulatzeko prozesua amaitzear dago. Zuen laguntzari esker, gure udalerriko egoera ekonomiko larria arintzen eta, honen eraginez, dauzkagun arazo sozialei irtenbide bat ematen lagunduko dizkiguten bideak zehaztu ditugu. Beste modu batean esanda, Azpeitiko garapen eredu berri baten oinarriak finkatu eta iraunkortasunaren aldeko apustua sendotu dugulakoan gaude.

Ekainean zuekin bildu ginen azkeneko aldiz. Bertan, Planaren zirriborro bat aurkeztu genizuen, planaren egitura eta helburu nagusiak zeintzuk diren azalduz eta, lerro bakoitzeko ekintza esanguratsuenak komentatuz eta eztabaidatuz.

Oraingo honetan, zuen parte-hartzea eta prozesu osoan zehar egindako lana eskertzeaz gain, jasotako ekarpenen balorazioa egin eta, hemendik aurrera, Planaren ezarpenean, zuen eginkizuna edo rol-a zein izango den zuekin eztabaidatu eta adosteko asmoa dugu. Horretarako, datorren **uztailaren 10ean**, arratsaldeko **7etan**, egingo dugun bilerara gonbidatzen zaitugu.

Bilerak, gutxi gora behera, ordu t'erdia bateko iraupena izango du.

Aldez aurretik zure interesa eta parte hartzea eskertuz, agur bero bat,

Eneko Etxeberria  
**Alkatea**